

2. Daranatz urgazleak, eskutitz batez, adierazten du: Bidasotik aruzko Euskalefian Euskal-Guraso Baltzua ezin iratsi ditekela.

Napañoa'ko Aldundiaren liburuzain Jesus Etayo jaunari idatzi bear zaio, baltzu onen buru Napañoa'n izan nai ote duan.

3. Donestebe'ko Euskal-egunetako egitamua, esku artean darabilki Euskaltzaindiak. Ara ofetarako erabakitako gaiak: *a)* Andre-irakasle batek itzaldi bat egin lezake, gai auxe artu-ta: *Aur-ikasgoa*. Itzaldi au ondo apaintzeko, euskal-ikasle, mutil eta nexkak, Donestebanen azaldu litezke. Eleizalde jaunari galdetu bear zaio, andre-irakasle ori zein izan liteken ta Olabide jaunak Tolosa'ko euskal-ikastetxeko irakasleari esan bezaio, aurtxo batzuek ofetarako aukeratzeko. Intzagarai'ek egin beza euskal-antzokiaren arazoa. *b)* Eguskitza euskaltzañak, Elkano'ko Lizañagaz itzaldi bat. *d)* Ezkieta'k, Napañoa'ko lorestiz. *e)* Irigai'ek, Napar-esakeraz. *g)* Nabaskues'ek, Roland'ez. *i)* Aita Laraintza'k, Mendiburuz. *k)* Gurutz Goynetxe Amayur'ko apaizak, Martin Azpilgoetaz. *l)* Intzagarai'ek, Oñeagaz olerkitxo bat; ta *m)* Katalin Eleizegi, Garbiñe'n egileak, beste itzaldi bat egin dezake.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta amaitu da batzaraldi an.

**Donosti'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian,
1923'ko Epaila'ren 27'an.**

Batzar ontara datozen euskaltzañak abetxek dira:
Azkue-maipuru, Urkijo, Kanpion, Lakonbe, Altube,

Landeretxe, A. Intza, Olabide ta Intzagarai, urgazlerik batez.

1. Altube jaunak esaten du: ez dala *í* mañatua, izki auxe gogor entzuten danean, beti mañatu bear, *vocal* artean datoñenean baño. Ereztu bear da idazkera ta ereztasunak orixe eskatzen du. Iru edo lau izki izango dira geyenaz beste otz berdiñezkoakin nastu litezkenak ta abei maña jañi bear zaie noski: Esate baterako: ur-urá ta zur-zurá, ur ta zur etik bereiztu bear dira.

2. *Euskera* gure aldizkariak gaya bear du bere orialdeak betetzeko. Azkue jaunaren *Morfologia* bertan argitaratu bedi.

3. Azkue jaun berak bere lan eder bat irakufi du. Auxe bere azalkaya: *Actuales y arcaicos imperativos y subjuntivos del verbo vasco*.

4. Aita Etxalar'i *Erizkizundi-Irukoitzan* lan ederak egin dituelako esker bereziak azaltzen zaizkio ta gañera Euskaltzaindiak 100 pezeta saritzat eman dizkio.

5. Dr. L. Muhlhausen jaunari Azkue-ren iztegia bidaltzea erabaki da.

6. Lekaroz'ko euskal-azterketak datoñen Joñalaren 29-an izango dira ta ango Aita nagusiak euskaltzain bat, joan dan urtean bezela, azterketa oiek ikustera joatea nai luke. Azkue jauna joango da.

7. *Ezkutitzak*. Zumañaga'ko Udaleko Jose Ur-dangarin jaunaren ezkutitzak gogo onez entzun dira.

Ezkufitz oiek eskatzen dutenez Euskaltzaindiak Euskaleñiko Udalai idatziko die, beren dirutzatik euskal-liburuentzat zerbait gordetzeko.

Urtel jaunarena irakuñi da eskerak emanez bidali zaizkion liburuagatik.

Schuchardt jaunarena ere irakuñi da: bidali zaion sorospideagatik eskerak agertzen ditu.

Esteban Irañeta jaunak, Iruña'ko euskal-irakasle danak, ango ikasleak beren ikastaroan ondo dioa-zela esaten du.

8. Aspañen'go Urian Broussain jaunaren oroigarritzat, onen jaiotetxean, ari bat jai bear da. Euskaltzaindiak eta ango Udalak erdibana ordainduko dute.

Eta beste gairik izan ez da, amaitu da batzaraldi au araudi-otoitzez.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1923'ko Joñailaren 26'an.

Batzaraldira euskaltzain abek datoz: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Eguskitza, Altube, Intza, Landeñetxe, Olabide eta Intzagarai, urgazlerik batez. Otoitzez asi da-ta, ara zer egin dan batzaraldi ontan.

1. Azkue jaunak Gerhard Bahr jaunaren lan bat irakuñi du. Schuchardt jaunaren idazti baten itzulpena da ta Sara'ko euskeraz jarduten du. Atsegiñez entzun du Euskaltzaindiak ta itzulpenaren beste zati bat ur-engo batzaraldirako utzi da.

2. Azkue berak irakuñi du bere lan eder baten bigařen zatia. *Categorías gramaticales* izentzat da